

Microsoft eta Amazon liburuak digitalizatzeko lehian sartu dira

Googlek abiatutako egitasmoari aurre egiteko, liburu digitalak salgai jarriko dituela iragarri du Interneteko liburu-dendak, eta Bill Gatesen konpainiak British Libraryko 100.000 lan jarriko ditu sarean eskuragarri

EDU LARTZANGUREN - DONOSTIA

Googlek abiatu zuen lasterketa, munduko bost liburutegi handienetako liburu guztiak digitalizatu eta Interneten kontsultagai jarriko zituela iragarri zuten. Ustez Copyright legeak bortxatzeagatik auzitegiatara eraman dute Google, baina liburuak digitalizatzeko uhinak indarra hartu du, apaldu beharrean. Erresuma Batuko Liburutegiko 100.000 liburu digitalizatuko dituela iragarri zuen ostiralean Microsoftek. Liburuak Internet bidez saltzen dituen Amazon enpresak, berriz, orriak, atalak eta liburu digital osoak salgai jarriko dituela iragarri du.

Gutxienez 15 milioi liburu Interneten jartzeko asmoa iragarri zuen Google konpainiak iazko udazkenean. Informazioa eta kultura denen eskuragarri jartzeko saio erraldoi gisa aurkeztu zuen egitasmoa Interneteko bilatzailearen buruak. Argitaletxe tradizionalak, ordea, mehatxutzat hartu dute liburutegi birtuala sortzeko asmoa, eta auzitara eraman zuten Google. Konpainiak muzin egin die salaketei eta ostegunean jarri zuen sarean lehen liburu bilduma.



BRITISH LIBRARY liburutegian dauden lanen katalogoaren zati bat. Erresuma Batuko liburutegian 13 milioi liburu eta zazpi milioi eskuizkribu daude, besteak beste. Microsoftek dio 100.000 liburu digitalizatuko dituela. BERRIA

Egun berean, digitalizatzearen lehia egin zuen jauzi Amazon Interneteko liburu saltzaile handienak. Apple iTunes musika-dendarekin egin duena egin nahi du Amazonek liburu-

kin. Jendeari aukera emango dio liburuak formatu digitalean erosteko. Are gehiago, atalak edo orriak erosi ahal izango dira. Horrez gain, erositako paperezko liburu baten bertsio digitala

bisitatzeak aukera emango du, diru pixka bat gehiago ordainduta. Horrela, erosleek aukera izango dute liburuak edonondik kontsultatzeko. Datorren urtean abiatuko dute zerbitzua.

Google salatu duten argitaletxeen ordezkariek Amazon zorriondu zuten, copyright legeak «aintzat hartzeagatik».

Bill Gates, erasora

Microsoft konpainia digitalizazioaren borrokan buru-belarri sartu zen herenegun. British Library liburutegiko 25 milioi orri eskaneatu eta sarean jarriko dituztela iragarri zuen Bill Gates presidentek. «Gure helburua ez da soilik digitalizazioaren bidez ondarea gordetzea. Horrez gain, bilduma izugarri hori eskura jarri nahi diegu herritarrei», esan zuen Gatesek.

Googlek ez bezala, Microsoftek soilik copyrightik ez duten lanak digitalizatuko ditu. Egitasmoan 21 milioi euro inguru gastatuko ditu datorren urtean. Lehen inbertsioa baino ez dela esan dute konpainiak buruek.

Beste egitasmo bat iragarri zuen Europako Batasunak urrian. Liburutegi digitala osatu nahi du liburuak, film zatiak, argazkiak, eskuizkribuak, hitzal-diak eta musika biltzeko. «Europako kultur eta historia ondarea ez galtzea» da egitasmoaren asmoa.

JAMES HILTON ① MICHIGANGO UNIBERTSITATEKO LIBURUTEGIKO BURUA

«Liburuak digitalizatzea hil edo biziko beharra da gizadiarentzat»

E.L. - DONOSTIA

James Hilton Michigango (Estatu Batuek) Unibertsitateko liburutegintza burua da. GooglePrint egitasmoan parte hartu du liburutegi horrek beste hiru liburutegi handiekin batera: Oxford, Stanford, Harvard eta New Yorkeko liburutegi publikoak. Milioika liburu digitalizatu dituzte dagoeneko, eta ostegunean jarri zuten sarean lehen bilduma.

Zergatik erabaki zenuten zuen liburuak digitalizatzea eta GooglePrint

egitasmoaren harira Interneten eskuragarri jartzea?

Parte hartzea erabaki genuen, egitasmo hau hil ala bizikoa delako gizadiarentzat. Pentsa, nolakoa izango den mundua inprimaturiko liburuetan bilaketak egiteko aukera badago, egun sarean bilatzen den bezala. Jendeak ahalmena izango du liburuak aurkitzeko. Gauza bat argi dugu: gauzak ezin badituzu Interneten aurkitu, garrantzia galduko dute, desagertu egingo dira. Bigarren arrazoia zera da,

ditugun lanen kopia digital bat gorde nahi dugula etorkizuneko belaunaldientzako.

Jende guztia ez dago ados, ordea. AE-Betako argitaletxeen eta idazleen ordezkariek egitasmoa gelditzeko eskatu dute auzitegiatan.

Egitasmoa erabat legezkoa dela uste dugu guk, eta bat datorrela erabat copyright-aren inguruko legeekin. Lege horrek oreka bilatzea du asmoa, herritarren onuraren eta jabearen eskubide mugatuaren arteko oreka, alegia. Azkenean lan guztiak publiko bi-



UNIVERSITY OF MICHIGAN

lakatzen dira. Egitasmoak onura ekarriko die idazleei, argitaletxeei eta irakurleei. Idazlea barenintz nire liburua ahalik eta jende gehienak aurkitzeko moduan egotea nahiko nuke. Zure libu-

rua aurkitzen badute, askok erosi egingo dute. Horrez gain, GooglePrintekin babestuta egongo dira liburuak. Teknologia digitala liburutegintza industria aldatzen ari da dagoeneko. Laster jende guztiak izango du eskaner bat etxean. Horrekin eginiko kopiak ez dira babestuak egongo. Horri izan beharko liokete beldur.

Microsoftek beste egitasmo bat iragarri zuen atzo. Geldiezina da dagoeneko liburuak digitalizatzeko joera?

Microsoften egitasmoa askoz txikiagoa da: 100.000 liburu. Guk zazpi milioi liburu inguru digitalizaturik izango ditugu hemen, egitasmoa bukatzen deneko. Aspaldi hasi ginen hori egiten, baina gure baliabideekin mila urte inguru beharko genituzke liburu horiek guztiak digitalizatzeko. Googlekin sei urte-tan bukatuko dugu.